



Usurbilgo Udala

## 2017KO APIRILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Miren Josune Estella Arranz  
Irene Garcia Palacios  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2017/03/28KO BILKURA.**

Aktaren 5. puntuan alkateak egindako aipamen bat ez dela jaso eta hau gehitzea erabaki da: "Gaineratu du Hirigintza batzorde bat ere egin zutela proiektua aurkezteko".

Aldaketa kontutan hartuta, 2017ko martxoaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu da.



Usurbilgo Udala

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017KO MARTXOAREN 20TIK APIRILAREN 7RA (2017/0264-2017/0353).**

Alkatetzak 2017ko martxoaren 20tik apirilaren 7ra bitartean (2017/0264–2017/0353) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 2017/0375 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

2017ko apirilaren 11ko 2017/0375 dekretuaren berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **4.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2017-2019).**

Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu.

Adierazi du Antolakuntza batzordetik datorren gaia dela eta bertan aipatu zuten moduan Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak jasotzen du Udalek diru-laguntzak emateko plan estrategiko bat egin beharko dutela. Legea aspaldikoa dela bai, baina Usurbilgo Udala ere beranduago hasi zela lege hau betetzen gaineratu du, batzordearen eraketa adibidez. Bestalde, diru-laguntza batzuekin afera batzuk egon direla ere aipatu du. Usurbilgo Udalaren kasuan, Diru-laguntzen Ordenantza 2008an onartu zen eta horren baitan bideratu izan dira diru-laguntzak.


Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek 2017-2018-2019an ze diru-laguntza lerro izango diren jasotzen dituela esan du eta zehaztu du gehienak gaur egun ematen direnak direla, gutxi batzuk aldatu egin dira (adibidez, mota egokitu) eta lerro berri batzuk ere jaso dira.

Plan Estrategikoa aldatu daitekeela esan du, baina betiere dagokion prozedura jarraituz.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2017-0093

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koa, bere 8.1 artikuluan ezartzen du diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Herri Administrazioetako organoek edo beste edozein erakundek, alde zuzenetik, hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantzabideak zehaztu beharko dituztela Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean.



Usurbilgo Udala

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatu artikulua oinarritzak dela eta Herri Administrazio guztiek aplikatu behar dutela. Bestalde, legezko mandatura betetzeaz gain, beste zio eta arrazoi batzuk daude agiri hau idaztea aholkatzen dutenak; adibidez, eraginkortasun eta efizientzia mailak hobetzea diru-laguntzako gastu publikoan, sail eta batzorde desberdinen arteko deskoordinazioak saihestea, udalaren laguntza jarduerari buruzko ikuspegi globala edukitzea, herritarrek errazago izatea diru-laguntzak lortzeko bidea, berme handiagoa lortzen baita gardentasunean, irizpide berdintasunean eta lehia librean, bai eta horri buruz udal kudeaketaren arazoizko erabilera bat lortzea ere, dagokion plangintza globalaz, prozeduren sistematizazioaz eta emaitzak ebaluatuz.

Horregatik, onartu daitezkeen aldaketa edo egokitzapenen kaltetan gabe, 2017-2019 epealdirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatzea erabaki du Usurbilgo Udalak, bai legeak agindutakoa betetzeko, eta baita honen helburuak lortze aldera.

Aurkeztu den Plan Estrategikoan Usurbilgo Udalak ematen dituen diru-laguntza programa eta lerro guztiak jasotzen dira, bakoitzean ondorengo aspektuak zehaztuz:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Diru-laguntzaren modalitatea.
- Nori dagoen zuzendua programa edo lerroa
- Zenbatekoa
- Aurrekontu aplikazioa

Plan Estrategikoa aztertu eta gero, Antolakuntza Batzordeak, 2017ko apirilaren 12ko bilkuran, aho batez (aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria) luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Hasiera batean onartzea 2017/2019 epealdirako Usurbilgo Udalaren Plan Estrategikoa.

**BIGARRENA:** Jende aurrean jartzea Plan estrategikoa onartzeko akordioa, 30 egunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten, eta behin betiko onartutzat joko dugu, epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoarekin bat.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da.

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi



Usurbilgo Udala

Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez onartu da.

## **5.- BERRI EMATEA: 2017/90001 KREDITU TXERTAKUNTZA.**

Alaitz Aizpuruak adierazi du datozen bi puntuak Ogasun batzordean tratatu zituztela eta bertatik diktaminatuta datozela, halaber, lotura dutela dio 2016ko urte itxierarekin. Batzordean itxieraren berri eman zela dio, plenora ez dagola zertan ekarri, baina bai ekarri behar direla dio ondorioz egiten diren kreditu txertakuntza eta epaiketaz kanpoko kredituak onartzea.

Batzordean aipatu zituen itxierari buruzko hainbat kontu plenora ere ekarri nahi dituela adierazi du. 2016ko aurrekontuaren itxieraz ari dela esan du eta aurrekontuak aurkeztu zituztenean irizpide eta hitz errepikatuetakoko bat zuhurtziaz egindako aurrekontuak aurkezten zituztela izan zela adierazi du. Itxiera aurkezten duten momentu honetan esan dezaketela dio zuhurtziaz egoki gauzatutako aurrekontuak izan direla. Horren adierazle izan dira sarrerren kasuan, %96an bete dela sarrerren aurreikuspena eta gastuen kasuan, %89an, honek ekarri duela dio exekuzioa 747.000 euro positiboan ixtea, hauetatik 546.000 euro inkorporatuko dira gero aipatuko duten txertakuntzan. Beraz, 227.000 euro positiboan gelditzen dira aurrekontuan gastatu gabe. Hori horrela, 11 milioiko aurrekontu batetaz ari garenean, zuhurtziaz egindako aurrekontu batzuen gauzatze egokiaz ari garela uste du.

Gaineratu du aipatutako 227.000 euroak poltsa orokor horretara joango direla, eta kontutan hartuta aurretik zegoen gerakina eta sortzen diren obligazio guztiak, 1.150.000 euroko gerakina geratzen dela esan du 2017ko aurrekontuaren aurrean. Halaber, kontutan hartuta ere Udalaren zorpetze maila %7,83koa dela, 2017ko abenduan 820.000 euroko zor bizia izango dela aurreratu du. Aurreikuspen eta kudeaketa egoki honek Udalari ematen diola esan du etorkizun motz batean aurten burutu nahi diren ezohiko proiektuei finantzaketa egoki bat bilatzeko aukera. Konkretuki, Zumarteko obrak ari dela esan du. Aurrekontuetan jaso gabe dagoen ezohiko inbertsio bat izango dela adierazi du.

Josune Urkolak, Alaitzek hasieran eman dituen sarrerren eta irteeren ehuneko horiei buruz adierazi du abenduaren 31ko datuak ez zirela horrela, aurrerago bai. Inbertsioak ez zeudela %95ean exekutatuta gaineratu du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio datuak horiek zirela, eta berak inbertsioak ez dituela aipatu baizik eta sarrerak eta gastuak. Batzordean aipatu zutena izan zen inbertsioen kapituluan ze ehunekotan hitz egiten ari ziren. VI. Kapitulan, abenduaren 31n %59 eta zerbait zegoen exekutatuta, inkorporazioak kontutan hartuta berriz %70a. Baina aurrekontu osoa kontutan hartuta, %89an dago exekutatuta.



Usurbilgo Udala

Alaitz Aizpuruak jarraitu du esanez itxierarekin batera aipatu zutela kreditu itxieraren azken puntu bezala kreditu txertakuntza dagoela. Hau da, 2016an konpromisoa hartu baina abenduaren 31n oraindik burutu gabeko obligazio horiek 2016ko aurrekontuan finantzatzen direla 2017an. Kreditu txertakuntza hori egiteko ze partida diren batzordean aipatu zituztela esan du. Txertakuntza horrek kontu-hartzailearen txostena eskatzen duela aipatu du eta bertan jasotzen dela dio finantzen iraunkortasuna betetzen duela, baina aurrekontuen egonkortasuna ez duenez betetzen, plenoan horren berri eman behar dela.

Karmele Lizaso udal kontu-hartzaileak adierazi du txertakuntza alkatearen eskumena denez, dekretuz onartuta dagoela, baina ez duenez egonkortasun araua betetzen, foru araua aplikatuz nahikoa dela horren berri ematea. Zehaztu du hau dela Udalak berak lortu duen diruzaintza gerakina erabiltzen ari dela gastu hauei aurre egiteko.

Udalbatzarrari berri eman zaio 2017/90001 kreditu txertakuntzaren aldaketa dela eta, Udalak ez duela egonkortasun araua betetzen, kontu-hartzailearen txostenean jasotakoaren arabera.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Honela dio Ogasun batzordearen irizpenak.

“2017ko apirilaren 6an, kontu-hartzaileak ondorengo txostena burutu zuen, 2017ko 90001 kreditu espedienteari buruz (txertakuntza), egonkortasun helburua eta iraunkortasun helburua aztertuz:

### **AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

1. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
2. 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
3. Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2017rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera (GAO 2016/11/15).

**AZTERTUTAKO TRAMITEA:** 2017. urteko kreditu aldaketa: txertakuntza 2017/90001.



Usurbilgo Udala

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) artikuluko entitateak (administrazio izaera dutenak):

1.1.- **ENTITATEA:**Usurbilgo Udala

1.2.- **HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

### **Aurrekontuen egonkortasuna**

2017/90001 espedientearen eraginez, Aurrekontuak **211.688,47** euroko **defizita** du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, aurreikusten ez denez ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da.

Toki Entitateei ezarritako 2017rako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, 2017/90001 espedientearen onarpenak **ez du betetzen** aurrekontu egonkortasunaren helburua.

**Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2017rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea:**

1. erregela. Aurrekontu egonkortasunaren erregela.


(...) “helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezt, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiruugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari”.

**2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena:**

“Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezt, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaitzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera”.

### **Finantzen iraunkortasuna**

2017ko abenduaren 31n, Usurbilgo Udalaren zor bizia (820.835,31), guztira, 2016an sarrera arruntengatik likidatutakoaren (10.478.112,13) **%7,83** izango da. Kalkulua egiteko, 2017ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua



Usurbilgo Udala

barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak.

2017rako helburua magnitude hori %77 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2017. urteko aurrekontuaren onarpen espedienteak finantza iraunkortasunaren helburua **betetzen** du.

### **Gastuaren araua**

(Soilik aurrekontua likidatzean)

#### **1.3.- ONDORIOAK**

2017. urteko kreditu aldaketaren (txertakuntza 2017/90001) onarpen espedienteak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

Hortaz, aipatutako jarraibidea betez, txosten hau Udalbatzarrera bideratzen dut, egoeraren berri eman eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Horrela beraz, Ogasun Batzordea osatzen dutenak, Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin eta aho batez, Udalbatza Osoari proposatu diote:

Udalbatzarrari berri ematea: 2017/90001 kreditu txertakuntzaren aldaketa dela eta, Udalak ez duela egonkortasun araua betetzen, kontu-hartzailearen txostenean jasotakoaren arabera.”

### **6.- EPAIKETAZ KANPOKO KREDITUAK ONARTZEA.**

Alaitz Aizpuruak adierazi du badaudela partida batzuk 2016an aurreikusten ziren gastuak ordaintzeko iritsi ez zirenak.

Aipatu beharrekoak direla dio Ingurumen teknikariaren bi txosten, batzordean ere azaldu zirenak, hor zehazten baita nola aurreikuspenak ez ziren egokiak izan eta nola iritsi garen egoera honetara. Gogorarazi du behin aurrekontuak onartu eta gero, San Marko Mankomunitateak GHK-k onartutako tarifak aplikatuko zituela jakinarazi ziela, organikoaren kasuan %73,26ko igoera aplikatuz eta, ondorioz, 58.000 euro aurreikusita bazeuden, gastu erreala 101.000 euro izan dira. Errefusaren kasuan, igoera %15ekoa izan da, aurreikusita 71.000 euro bazeuden, gastu erreala 81.000 eurokoa izan da.

San Markoseko kuotan ere ia 5.000 euroko igoera egon dela aipatu du.

Azkenean, guzti honek aurrekontuetan 58.000 euro inguruko desfasea suposatu du.



Usurbilgo Udala

Azken partidaren kasuan, Hondakinen bilketa zerbitzua (Garbitania), aurreikusitakoa 560.000 euro baziren, gastu erreala 603.000 eurokoa izan dela jakinarazi du. Gastu honen igoeraren arrazoiei buruz, txostenean jasota dagoen bezala, nagusiki BEZagatik afera baten ondorioz dela esan du. Hala ere, adierazi du BEZagatik 15.000 euro ordaindu badituzte ere, 36.000 euroko sarrera bat ere izan dutela, Garbitaniak BEZa ordaintzen bazuen ere, salbuetsita geratzen delako.

Poligonoetako bilketan ere lanketa berezi bat egin dela eta horretarako aholkularitzak ere gastua igotzea suposatu duela adierazi du.

2016an kreditu aldaketa bat egin ezker, hau guztia konpondu zitekeela esan du, baina ez zuela horretarako astirik eman eta modu honetara egin behar izan dela esan du.

Kontu-hartzaileak gaineratu du alkateak onartu duela 2017ko aurrekontuan kreditu aldaketa bat kopuru honengatik handituz.

Josune Urkolak galdetu du orain bozkatzera doazena ea soilik den hauek kontabilizatzea.

Kontu-hartzaileak erantzun dio horrela dela eta zehaztu du 2016ko gastuak direla, 2016an emandako zerbitzuak direla, fakturak 2016koak direla eta inputatu behar direla 2016an, baina 2016an krediturik gabe geratu zirenez, orain plenoak baimena eman behar duela 2016ko gastu hauek 2017ko aurrekontuan kontabilizatzeko.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du hau egin aurretik alkateak kreditu gehikuntza bat onartu duela.


Batzarkideek, Ogasuna batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Ikusirik Kontu-hartzailearen apirilaren 7ko txostena, non, besteak beste, ondorengo hauek esaten dituen:

“Hondakinen bilketa eta tratamendua direla eta, indarrean dauden kudeaketarako zerbitzuak ohi bezala eman dira 2016. urtean. Emandako zerbitzu hauengatik onartu beharreko obligazioak indarrean zeuden kredituak baina handiagoak izan direnez, ezin izan dira 2016. urtean kontabilizatu. Egoera honen aurrean, eta urte osoko gastua aurreikusiz, kreditu-aldaketa bideratu beharra zegoen.

(...)





Usurbilgo Udala

Beraz, baimendutako eta xedatutako gastuen aurrean egonik, obligazioak onartu ahal izateko (zerbitzuak emanda daude eta beharrezko oniritziak espedienteen jasota ere), legeak ezarritako mugak errespetatu ez diren kasu hauetan, Udalbatzarrak obligazio hauek 2017ko aurrekontuari egozteko erabakia hartu behar du, epaiketaz kanpoko kredituen aitorpenerako espedienteak onartuz”.

Ogasun Batzordeak, apirilaren 12an egindako bilkuran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Etxebarriaren aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI.-** Epaiketaz kanpoko kredituak onartzea (2017/001 espedienteak), kontzeptu eta kopuru hauengatik:

2016ko partida	Izena	Zenbatekoa
1,6100,227,162,30,01,2016	Hondakinen tratamendua: organikoa	8.326,02
1,6100,227,162,30,11,2016	Hondakinen tratamendua: errefusa	7.101,30
1,6100,421,162,20,01,2016	San Marko Mankomunitatea	6.370,04
1,6100,227,162,10,21,2016	Hondakinen bilketa zerbitzua (Garbitania)	48.784,43
	<b>Guztira</b>	<b>70.581,79</b>

**BIGARRENA.-** Esandako kredituak 2017ko Aurrekontuari egotzi, ondoren zehazten diren kontu-sailetan, hain zuzen ere:

2017ko partida	Izena	Zenbatekoa
1,6100,227,162,30,01,2017	Hondakinen tratamendua: organikoa	8.326,02
1,6100,227,162,30,11,2017	Hondakinen tratamendua: errefusa	7.101,30
1,6100,421,162,20,01,2017	San Marko Mankomunitatea	6.370,04
1,6100,227,162,10,21,2017	Hondakinen bilketa zerbitzua (Garbitania)	48.784,43
	<b>Guztira</b>	<b>70.581,79</b>

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elepe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.



Usurbilgo Udala

Beraz, irizpena gehiengoz onartu da.

## **7.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: LARRIKI GAIXORIK DAUDEN PRESOEN ESKUBIDEAK.**

Alkateak adierazi du Antolakuntza batzordean adierazpen honi buruz hitz egin zuten arren ez zutela diktaminatu, beraz, hasteko puntu hau tratatu edo ez bozkatu behar dutela.

Batzarkideek, aho batez, puntu hau tratatzea erabaki dute.

Jarraian, alkateak adierazi du adierazpen honek larriki gaixo dagoen Oier Gomez euskal presoaren egoera duela hizpide.

Hala ere, Antolakuntza batzordea egin zenetik hona presoaren egoera juridikoa aldatu egin dela zehaztu du. Izan ere Parisko auzitegiak bere kondena etetea erabaki baitu, nahiz eta oraindik kartzelan dagoen euroagindu bat edo besteren ebazpenaren zain.

Adierazpenaren bi puntuak irakurri ditu.

Gaineratu du adierazpen honek udal honetan ordezkatuta dauden hiru alderdien babesa jaso zuela Euskal Parlamentuan.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du, batzordean esan zuen bezala, kasu hau oso berezia dela. Arabako erakundeetan aurkeztu zela eta bertan ere alde agertu zirela esan du, baina betiere kontutan izanda oso kasu berezia dela.

Batzarkideek, aho batez, honako adierazpena onartu dute:

### **“LARRIKI GAIXORIK DAUDEN PRESOEN ESKUBIDEAK**

#### **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Oier Gomez Mielgo Gasteizko preso, kartzela zigorra Meauxen (Frantzia) betetzen ari dena, buruan eta pelbisean metastasia eragin dion Ewing sarkomak jota dago, larriki gaixoturik. Hori dela eta, bere egoera kontuan hartuta:

1.- USURBILGO UDALAK eskumena duten frantziar agintzariei eskatzen die gaixotasun larriak sufritzen dituzten presoak askatzeko indarrean dagoen legedia, nazionala zein nazioartekoa, aintzat har dezatela datozen egunotan Oier Gomez Mielgoren kartzela egoeraren inguruan hartu behar dituzten erabakietan.

2.- USURBILGO UDALAK akordio hau helaraziko dio Oier Gomez Mielgoren kartzela egoerari buruz erabaki behar duen epaitegiari, bai eta Frantziako Justizia Ministerioari ere, Gomez haren jurisdikziopean eta babespean baitago.”



Usurbilgo Udala

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da.

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez onartu da.

## **8.- GALDERA-ESKAERAK.**

Txokoaldeko geltokia dela eta, alkateak adierazi du deialdi bat egin zela espazio hori kultura proiektu berritzaileei eskaintzeko eta erabakia hartuta dagoela. Irabazi duen proposamena Oreka TX taldekoen Txokoaldeko Txalaparta Txoko bat eratzea izan dela zehaztu du. Irekiera ekitaldia maiatzaren 5ean, arratsaldeko 18:30ean, egingo dela eta gonbidapena luzatu die batzarkideei. Ekitaldi horretan herritarren aurrean espazioa nola geratu den eta beraien jarduna nola izango den erakutsi nahi dutela zehaztu du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du “espazioa moldatu” esaten denean, aurpegi garbiketa bat besterik ez dela izan, soilik erratza eta palarekin egin daitezkeen konponketak izan direla argitu du.

Alkateak gaineratu du deialdia egin zenean esaten zen baloratzen zela elkarlanerako aukerak sortzea, ez izatea espazio itxi bat, alderantziz, irekia izatea. Oreka TX taldea perkusio eta txalapartaren munduan talde erreferente bat dela eta herri honi ekarpen oso interesgarri bat egingo diola uste dute, baina horretarako lanerako atmosfera egoki bat sortu behar dela dio, modu honetara herritarrei aterak irekita lortu daitekeena.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:34ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**